

ZINEMA. 'The lord of the rings' filmak izendaturik zegoen hamahiru sarietatik lau eskuratu zituen azkenean



KEVORK DJANSEZIAN / AP

RON HOWARD GARAILE. Hollywoodeko zinemagile ezaguna izan zen igandeko sari banaketako izar nagusia. Haren filmak lortu zituen Oscar garrantzitsuenak.



LEE CELANO / EPA

DANIS TANOVIC. Zinemagile bosniarrak lortu zuen ingelesez besteko film onenaren saria.



DOUG MILLS / AP

ROBERT REDFORD OMENDUA. Ohorezko saria, Sundance Jaialdiko zuzendariarentzat.

Oscar Sariak

Film onena	<i>A beautiful mind</i>
Zuzendari onena	Ron Howard (<i>A beautiful mind</i>)
Emakumezko aktore onena	Helle Berry (<i>Monster's ball</i>)
Gizonezko aktore onena	Denzel Washington (<i>Training day</i>)



Bigarren mailako aktore onena (E)	Jennifer Connelly (<i>A beautiful mind</i>)
Bigarren mailako aktore onena (G)	Jim Broadbent (<i>Iris</i>)
Jatorrizko gidoi onena	Julian Fellowes (<i>Gosford Park</i>)
Egokitutako gidoi onena	Akiva Goldsman (<i>A beautiful mind</i>)
Argazki onena	Andrew Lesnie (<i>The lord of the rings</i>)
Muntaia onena	Pietro Scalia (<i>Black Hawk down</i>)
Musika onena	Howard Shore (<i>The lord of the rings</i>)
Jatorrizko kanta onena	<i>If I didn't have you</i> (Randy Newman-Monsters, Inc.)
Zuzendari artistiko onena	Catherine Martin eta Brigitte Broch (<i>Moulin Rouge</i>)
Ingelesez besteko filma	<i>No man's land</i> (Danis Tanovic)
Efektu bisual onenak	<i>The lord of the rings</i>
Soinu onena	<i>Black Hawk down</i>
Soinu efektu onenak	<i>Pearl Harbor</i>
Jantzi onena	Catherine Martin eta Angus Strathie (<i>Moulin Rouge</i>)
Makillaje onena	Peter Owen eta Richard Taylor (<i>The lord of the rings</i>)
Animaziozko film onena	<i>Shrek</i> (Aron Warner)
Film labor onena	<i>The accountant</i> (Ray McKinnon eta Lisa Blount)
Animaziozko film labor onena	<i>Pajaritos</i> (Ralph Eggleton)
Documental onena	<i>Murder on a sunday morning</i>
Film labor dokumental onena	<i>Thoth</i>
Ohorezko Oscarra	Robert Reford eta Sidney Poitier

Oscar sarien banaketa 'zoragarria'

'A beautiful mind' lanak film, zuzendari, gidoi egokitu eta bigarren mailako emakumezko aktore onenaren sariak irabazi ditu



MARK J. TERRILL / AP

BERRY ETA WASHINGTON AKTORE ONENAK. Helle Berryk eta Denzel Washingtonek irabazi zituzten, hurrenez hurren, emakumezko eta gizonezko aktore onenen sariak.

Agentziak | LOS ANGELES

Gaikitze pertsonala, John Nash matematikari eta Nobel saridunak eskizofreniaren aurka eraman zuen borrokaren kontakizuna saritu du aurten Hollywoodeko Akademiak. Izan ere, Ron Howard zuzenda-

riaren *A beautiful mind* filma izan zen igandeko Oscarren sari banaketan garaile. Filmak izendaturik zegoen zortzi sarietatik lau lortu ditu, garrantzitsuenak tartean: film onenarenaz gain, zuzendari onenaren, gidoi egokitu onenaren eta bigarren mailako emakumezko aktore one-

naren sariak eskuratu zituzten Kodak antzokian eginiko sari banaketan, hurrenez hurren, Ron Howardek, Akiva Goldsmanek eta Jennifer Connellyk.

«Beti izan dudau ametsa bete da», azaldu zuen sariak eskutetan zituela Ron Howard zinemagileak, zeina oso gaztetatik

dabilen Hollywoodeko filmetan, aktore nahiz zuzendari lanetan.

The lord of the rings filmak eskura zitzakeen 13 sarietatik lau jaso zituen azkenean, teknikoak hain zuzen ere: makillaje, argazki, efektu berezi eta musika onenen sariak. *Moulin Rouge* eta *Black Hawk down* filmek, berriz, bina sari eskuratu zituzten.

'In the bedroom' eta 'Amelie', esku hutsik

Oso hunkiturik jaso zuen emakumezko aktore onenaren saria Helle Berry *Monster's Ball* filmeko protagonistak: «Ez nuen uste inoiz gau hau iritsiko zenik», esan zuen, aktoretan Oscarra irabazi duen lehen emakumezko beltza dela eta.

Denzel Washingtonek, azkenean, *Training day* filmean eginiko lanagatik jaso zuen saria, Oscarretarako bost aldiz hautagai izan eta gero. «Bizitzak ahalik eta onena izaten saia nadila erakutsi dit. Eskerrak eman be-

har dizkiot Akademiari, ahalik eta onena izaten saiatu naizela esan didalako», adierazi zuen Oscarra eskutetan zuela.

Aipagarria da *In the bedroom* eta *Amelie* filmak esku hutsik irten zirela Kodak antzokitik. Lehenak bakarria ere ez zuen lortu bost izendapenetatik, eta bigarrena izendaturik zegoen ingelesez besteko film onenaren saria Danis Tanovic zinemagile bosniarraren *No man's land* filmak erdietsi zuen. Sari banaketako ustekabe handiena bigarren mailako gizonezko aktore onenaren Oscarra Jim Broadbenter ematea izan zen. *Iris* filmean eginiko lanagatik eman zioten.

Woody Allen sari banaketan

Irailaren 11ko erasoan eragina Oscar sari banaketara heldu zen, horren ondorioz hartu baitzuen parte lehenengo aldiz ekitaldian Woody Allen zinemagileak. Zineman New Yorkek duen presentziari buruzko muntaia aurkeztu zuen.